

**EKIDIN DELAKOAREN LEHENGUSU ETA
IZTERLEHENGUSUEZ****1-Sarrera**

Zaharrak berri egin nahi ditut artikulutxo honetan. Behin eta berriro gure artean egon ohi diren gaietariko bat hartu nahi nuke, ez inoren kontra joateko asmotan, neure aurrekoen lana goraiatzeko baino. Elkarri zirika eta muzinka ibili beharrean, elkarren artean egin beharreko lana dut mintzagai. Elkarren arteko lana noraezekoa dugu, ezer aurreratuko badugu. "Dabeneri dabena" esaten da Bizkaialdean, zabalago dabilen esaera zaharra erabiltzeko "Nori berea da zuzenbidea". Guk artikulua honetan ere euskal munduan dabiltzanen ekarriak eta iritziak aztertuko ditugu. Mitxelenak, garai bateko "soin" eta "gorputz" hitzen eztabaidan zioen bezalaxe, *trapu zaharrak pasaratzen* ari garela pentsatuko du batek baino gehiagok. Gure asmoa besterik da.

Euskara apur bat irakurri eta idazten dugunon -nik ere neure burua lotsaz sar badezat ere- mundu txiki, hestu eta harrigarri honetan, badira hainbat hitz aho betekoak diruditenak: esposatu, ekidin, batetaz... Irakurtzen ditudan artikulua, liburu edo dena delako izkribuetan beti beren burua agertzen dute

zenbait hitz, aditz eta adizki xelebrek. Gaur egun darabilgun euskara landu edo landutzakoa hitz, aditz eta adizki endemiko xamarrez zirtakatua edo zipriztindua dago. Are idazlerik onenak eta landuenak ere ez dira eraso edo uholde horretatik aldentzen. Gure artean oraindik korritzen dute zenbait hitz eta aditz iratxo xamarrek. Mitxelenak hainbat lan egin zuen *bitz iratxo* edo *ghost words* direlakoak salatzen¹. Hitz iratxook gure literatura idatziko pasarteak gaizki irakurri eta hiztegiratuak dira gehienak. Hiztegietatik hiztun "landu" gehienon ahora ekarriak dira, moda berrizalearen bolada zoroak eraginik. Lino Akesolo maisuaren lan bat oinarri harturik testigantza eta ondorio nabarmenagoak ekarri nahi nituzke artikulua honetan. Arratiarrak bere "Zer da Axularren ekidin?" artikuluan², ilunune bat argitu eta arrasto berri bat zabaldu zuen. Guk arrasto horren argitan adibide gehiago emango ditugu.

Gaur eguneko euskara jaikian denon aho-mihitan dabil *ekidin* miragarria. Bada honen ume are miragarriagoak erabiltzen dituenik ere, esaterako, *ekidinezin* eta *ekidingarri*, erdarazko "inevitable" eta "evitable" adierazteko. Hitzok zabaldu zituen iturria, edo hiztegia, Xabier Kintanaren hiztegia izan da. Hone-laxe dakar euskara-erdara sailean *ekidin*: ad. evitar, -ado; *ekidinezin*: ad. inevitable; *ekidingarri*: adj. evitable. Alderantzizko bidea hartzen duenak, erdara-euskara sailean, *evitar*: ekidin, -ri itzur(i) *evitable*: ekidingarri, itzurgarri; *inevitable*: ekidinezin, noraezko, nahitaezko, baztertezin.

¹ Hor dira, esate baterako, "Azkue lexicógrafo" in L. MICHELENA - J. CARO BARROJA - A. TOVAR, *Don Resurrección María de Azkue*, Bilbao 1966, 14-37or. eta *Estudio sobre las fuentes del diccionario de Azkue*. Artikulu asko idatzi zituen maisu errenteriarrak *Boletín de la Real Sociedad de Amigos del País* delakoan. Zenbait aipatzekotan "Errores, descuidos y similares" in BRSAP 228-231or. 1960. "Embrollos y similares" 376-377or. 1960.

² Lino AKESOLO, *Idazlan guztiak* III, 121-125 or. Artikuluak oin-ohar bat dakar: 1991-IV-26an eginiko lana: Aita Villasanteren omenaldirako egin eban. Baina ez zan argitaratu ortografia arazo batzuk zirala-ta.

Hiztegi hau erabiltzen zutenek, beraz, lehentasuna ematen zioten *ekidin* delako horri. Euskara liburu bidez ikasi edo aberastu duten gehienek, edo ia guztiek, beti erabili dituzte hiztegitiko hitz miragarriak. Erabili, gainera, izkribuz ezezik, ahoz ere bai beren maila goitarra erakutsi beharraren beharrez. Hasi Larramendiren hiztegitikoetatik, segi Arana Goiri eta honen eskolako lanetatikoetatik eta ia egunotara arte Kintanaren hiztegirainokoak ere. Kintanaren hiztegitik beste hainbate-tara ere pasatu dela dirudi. Sarasolaren atalkako *Hautu-Lane-rako Euskal Hiztegian* ez dugu aurkitu, baina ale bakarrean agertzen den *Euskal Hiztegi* bateratuan honelaxe aurkitu du-gu, **Ekidin, ekiditen.** du ad. (1643). Saihestu; ihes egin. *Ez entzun meza eta bai ekidin errazki.* Ibon Sarasolak agertu duen *Euskara batuko ajeak* liburuan ere honelaxe dio: **Eki-din.** *Ez dut ezer hitz honen kontra, baina gaur erabiltzen den ebuneko laurogeita hamabostetan egokiago izango litzateke saihestu erabiltzea, askozaz normalagoa ta tradizio hobekoa baita.* Noiz den lehen agerraldia agertuaz batera 1643, adibide eta guzti dakar. Agertze data Axularren *Gero* lanekoa da. Adi-bidea, ordea, ez. *Gero* laneko adibidea Villasanteren edizioko 245 pasartean dator.

2- Ekidin hamazazpigarren mendean

Euskal literatura zahar oparoena, denok dakigunez, *Sarako eskola* deitzen dugun mugimendu literariotik datorkigu. Hama-zazpigarren mendeko pasarte batzuk aldatuko ditugu hona. Pasarte horietako *ekidin* formaren ingurune edo kontestuak ar-gia emango dio, beharbada, bati baino gehiagori. Hasi gaiten Sarako erretore famatuarengandik. Axular idazle gailena-ren lanean, **Gero**-n, agertzen da *ekidin*. Lehenengo edizioko XXXVII kapitulutik, 371-372 orrialdeetatik, pasartetxo bat alda-tuko dugu hona:

Ordea vzte baur, amorantea ganic aparratce baur, nola edo cer moldez eguinen duçu? Onez onetara, etfaitu gabe, ala

*etsaituric? Baldin etfaitcen baçara, horra non duçun bera ba-
la amorante haren ganic milla burbo, eta maradicino: erran
merran, eta defohore: eroftcodu oihu eguinen du, eztu neborc
ichilduco. Bada etfaitu gabe, eta gaitzera ethorri gabe, onez
onetara apartatcea ere, gaitz icanen da, eta perilos. Ceren le-
ben trebatuac içan, eroriac içan: lehen beçala elccarrequin
egotten, ibiltcen, minçatcen: occasinoac ere lehen beçala, edo
maiz ago presentatcen, eta guerthatcen: gogoa vrri, aldatcen
errax: eta emazteac ere behin guerthatuz guero, ez falta **equi-
din**. Bada eguiteco, bada certan penfa. Badirudi hobe liçate-
queyela, gaitz eraric, eta bafferreturic, partitcea, eta elccar vtz-
tea.*

Pasarte horretan ikusten da, esaterako, Villasantek erizpide
onez zuzendutako *aparratce* delakoa *apartatze* erara, grafikoki
r eta *t* grafemak maiz nahasten direlako lehen edizioan³. Axu-
larrek dakarren *ekidin* delakoa ez dugu agerraldi bakarrekoa
edo *happax legomena* horietakoa. Lino Akesolok hamazazpi-
garren mendeko beste idazle biren lanetan ere aurkitzen du.
Idazleak Joannes Haranburu (1635) eta Kristobal Harizmendi
(1607) dira. Lehenaren pasarteak ez dugu geuk idazlearen jato-
rriko liburutik aldatuko hona, Akesolok dakarren moduan
baizik: "konsentimendua iru motatakoa izan daiteke: formala,
virtuala eta interpretativa. Noiz da azkenengo au? *Interpretati-
va zure nahira bekatua oroittean plazer hartzea eta plazer hu-
ra ez gibelatzea; gibela **ekidin** eta ez egin nahi, konsentitu du-
zu*" (9137-1690). Letra etzanean dagoena da Haranbururena,
Akesolok dakarrenez. Harizmendiren pasarteak *Hirur Officio* li-
burukoa Vinsonek egindako edizioan 192 orrialdean honelaxe
dakar: "*Examina çaitte azquen cofestioan abanciez, edo ez asco
examinatu: ez asko vrriqui. Dudatu fedeco pontuz, edo buxic
eguin. Ez corregitu, bai trufatu nihoren abisuez. Oracinotan*

³ Egia esan, grafian batzuetan nekez ikusten da *t*-tik *r*-ra doan luzetasuntxoak
edo "buztantxoak". Zentzuak, gehientan garbitzen du grafiaak ilunxko uzten
duena.

barraiatu eta nabasi ceure anculara. Etcin oberat conciencia vngui examinatu gabe. Ez ençun meça, eta bai equidin errazqui. Egotu Eliçan solasen edo piztu occasinoric".

Zer ondorio atera dezakegu testu hauetatik? Atera ditzagun hiru oinarriko ondorio. Lehena: Hamazazpigarren mendeko hiru idazleren testuetan agertzen da **ekidin** delakoa. Bigarrena: Hiru idazleok Sarako eskolakoak dira. Jatortz Sarakoak izan ez arren herri horretakoak dira egoitzaz. Axular, denok dakigunez, Urdazubin jaioa zen baina Saran izan zen apez. Harizmendiren liburuan honelaxe dator *Vicaire de Sare et Prédicateur*: Joannes Haramburu, gaur egun nekez aurkitzen den *Debocino escuarra, miraila eta oractnotegua* liburuaren egi-lea ere Sarakoa zen, Etxeberri mirikuak dioskunez. Eta hirugarrena, eta oraindik azkena. Ez da batere erraza, hiru pasarteok ondo baino hobeto irakurtzen ahaleginak egin arren, **ekidin** argi eta garbi nola erabili behar den ikusten. Egia esan adibide zahar gutxiegi ditugu **ekidin**-en erabilera zehatza nolakoa den jakiteko. Adibideak gutxi dira, batetik, eta ez behar bezain argiak, bestetik. Ez dut uste hiru adibideek, guztira hartuta ere, behar beste argi ematen dutenik. Beste gauza bat ere beharrezkoa da kontutan hartzea. Gaur eguneko erabilerarako, itxurak direnez, Axularren pasartekoa bakarrik hartu da oinarri. Hiru hankako mahaia nekez dago lurrera gabe. Hanka bakarrekkoa, ordea, nekezago.

3-Kidin formak hemeretzigarren mendeko zenbait idazlerengan

Harrigarria bada ere, autore klasikoen luman ez da gehiago agertuko **ekidin** delakoa. Oraingoz ez ditugu zenbatu hamazazpigarren mendeko hiru pasarte baino. Hemeretzigarren mendean, ordea, atzizki beraz horniturik agertzen diren beste ale batzuk agertzen dira. Idazlea Laurent Diharassarry dugu. Liburua *Mariaren haurren eskuliburua*. Linok agertzen digun pa-

sartea: "Zeruan, dohatsuen begiak, belbarriak, bibotza, gogoa, bitz batez arima eta gorpbutza asean bezala egonen dire. Asean, bainan beti **harkidin**, beti kasik **jankidin** eta **edankidin**". Oraingo ez ditugu Laurent Diharasari (1848-1902) idazlearen euskarazko lan guztiak irakurri, baina okertzeko beldur handirik gabe esan dezakegu ez direla izango **-kidin** atzizkidun aditz bakarrak⁴. Har dezagun, esaten dugunaren berme, hemeretzigarren mendeko beste idazle klasiko bat J. Martin Hiribarren. Idazle honen zenbait lanetan ibili gara azterka. Aztertu ditugunak hauexek dira *Eskaldunac. Iberia, Cantabria, Eskal-berriac; Eskal-berri bakbotcha eta hari darraicono* (Baiona, 1855) *Escaraz eguia* (Baiona, 1858) Xipri Arbelbidek argitara emandako "Drame 891an Eskaldun guerla"⁵ Miren Pagolak argitara emandako "Napoleon Lehena" eta Euskal Lore Jokoetako sorkariak⁶. Testu guzti horietatik **-kidin** atzizkia duten hainbat ale atera dira. **Ikuskidin**, **ethorkidin**, **eginkidin**, **ekharkidin**, **izankidin**, **harkidin**, **hurbillkin**, **galdekin**. Zerrenda honetako **harkidin** delakoa Laurent Diharasariy ere badakar **jankidin** eta **edankidin**-ekin batera. Adibide guzti hauek Hiribarrenen lanetikoak dira. Hona hemen testuinguruak:

Han arte mintzo bera guciac seguitu;
Eguia horrec froga segurenac ditu:
Nor nahic **ikuskidin** liburu saindutan,
ithurri garbienac mende gucietan (Eskaldunac 7or.)

Hainitzac egon dire ethorri nahiac,
Escolec ezbaizutzen hec behar nausiac

⁴ Badu -kidin atzizki honek aldaeratxo bat: -kiden.

⁵ Xipri ARBELBIDE, *Drame: 891an euskaldun gerla* in *Memoria L. Mitxelena Magistri Sacrum* pars prior 485-504 or.

⁶ Patri URGAZU, *Anton Abbadiaren koplarien guduak*, Donostia, 1998, 3 alea.

⁷ Patri Urkizuren edizioan *biamanta*.

Beldur horrekin orai nihor ez egonen,
 Eskola hautatuac urekin izanen,
 Yakitatea yarri beharrean alkhian,
Ethorkidin non nahi mainhorat lorian.
 Ez aski yakitate, bada segurantza
 Arhatzeko zuhurki bera den bihotza (Eskaldunac 97 or.)

Non errientsa onac, han nescatcha onac;
 Bihotzec erakusten eman zaizconac;
 Nausien bozcario, ikustea haurrac
 Seguitzen erakutsi zaizten hiz zuhurrac.
 Heki esker ama bat izaten da ona,
 Bere ondocoekin cerurat dohana.
 Mintzatzen balituzte amac herrietan,
 Aguer liteke ungui menderen mendetan;
 Hainitz dute amekin segur **eginkidin**;
 Bakharca ez dukete eguin ahal berdin.
 Emanez beraz balsan unguico nahia,
 Bilha bezate oroc zorion bahia. (Eskaldunac 176or.)

Eskaldun emazteac lainoki beztitzen;
 Upularda, yakekin, athorrac gordetzen;
 Kasakina, buruco eta lephocoa,
 Zapata herrestekin, yauntzi bethicoa.
 Igande egunetan, Etcheco-Andreac
 Elizarat yoaiten lephotic ureac:
 Izpiritu Saindua dute gurutzetan;
 Berriac hasi dire trukutzen gathetan;
 Soin seda eta capahainitzec ekhartzen;
 Buruco organdila, churiz arrimatzen.
 Gutiago direnac bere ethorkitan
 Mantalinekin dire igande-bestetan;
 Astelehen guciez, balioan deusic,
 Zangarrac gorri eta zangoac orthutsic,
 Achiroinac bortz aldiz odol dituztela;

Alaba hoberenac **ikuskidin** hola;
 Edocein lanetaco dituzte besoac,
 Ondoren ondo seguiz bere arbasoac (Escaldunak 181or.)

Erraiteco liteke cerbeit ez yakinez,
 Sobra errechkiegui notaltzen direnez:
 Yakinen meneco da contratuzco lana;
 Hitz batec **ekharkidin** seculaco mina;
 Escribec balukete contu emaiteco,
 Gauza pisatu gabe, deus ez eguiteco; (Escaldunak 209or.)

Erran bezala eguin zuten. Handic zenbait egunen buruan, heldu zaiote hauzo bat, eta ikustean paper hori, erraten diote: Hol, ho! noizdanic tapizatzen duzue sukhaldea bankaco bille- tekin?-Paper hortaz mintzo zare, eraten dio emaztec...Ah! asin- nata hortaz, dio senharrac?-Paper edo asinata, errazue nahi du- zuena, bainan mila liberaco billeta da, eta nahi duzuenean bil- hakatuco duzue diru. Ez diteke holacoric, diote hirrikan senhar-emaztec-**izankidin** baino gueihago da, hala baita, dio hauzoac; eta yakiteco laster eta hobeki, goazen bankarat. (Es- karaz eguia 20or.)

*V Itxuran du gaindiz arraizia,
 Ezpainetan birri berezia,
 Aingerutzat **harkidin** guzia,
 Aphainkidin zeruko bizia.*

*VI Begiez du diamanta⁷ histen,
 Perla hortez ixiturik uzten,
 Harmin eztiz arrosa bekbaizten,
 Liztafina gerriaz ahazten.*

VII *Ez du xoilki lebai banditan*
Badabila bide guzietan,
Hurbilkidin *nor nahi goritan*
Hola nola haren beheretan.

VIII *Bere ona da nigar xukatzen*
Galdek niboiz ez dute unbatzen,
Ez da beldur atbe idekitzen,
Karitatez tronua agertzen.

IX *Bibotz urre, zeruan piztua,*
Ungiari betbi zabaldua,
Galdekidin *den arkanjelua,*
Elizetan denean kburtua.

(Anton Abbadiaren koplarien guduak, 3, 182or.)

Gramatika eta hiztegietan ere bakan agertzen dira **-kidin** duten eratorriak. **Ahazkidin** esaterako Lhanderen hiztegian agertzen da. Lafitte-n *Grammaire Basque* da aberatsena azalpen eta adibideetan. Ez dago 281 eta 433 pasarteak ikusi besterik. Esaterako, *gertatua berriz ethorkidin*, ce qui fut sera (281) eta *hasia eginkizun* ou **eginkidin**, ce qui est commencé doit être achevé.(433).-Kidin atzizkiaren adibideak ezezik, erabileraren giltza ere Lafittek eman zuen bere gramatika bikainean: “**-kizun** et **-kidin** forment des adjectifs verbaux actuellement très rares et indéclinables, qui équivalent à peu près aux adjectifs verbaux latins en **-ndus**; ils marquent le futur, la destination, l’obligation (443 pasartea)”. Hor dugu arazoaren gakoa: ekidin ez da aditza. Akesolok bere artikuluan egiten duen salapena guk ere geure egiten dugu. Horretarako ekarri ditugun adibide guztiak bat datoz Lafittek esaten duenarekin: -kidin

forma guztiek ez dute onartzen atzizkirik. Guk hona ekarri ditugun baino adibide gehiago ekar daitezke. Hiribarrenen argitaratu zein argitara gabeko izkribuetan badaudeke **-kidin** formadun gehiago. Uste izan dugu, era berean, Diharasarriren lan agertu zein agertu gabeetan ere izango direla horrelakoak. Hiribarrenen testuetan aurkitu ondoren hainbat **-kidin** forma, Diharasarriren zenbait lan irakurri ditugu bururen buru. Aztertutako lanak edo liburuak *Matatzeko liburu berria*. *San Antonio Paduakoa*. *Giristino legea laburzki* eta *Mariaren haurren escu liburu* mardula izan dira. Argitara zituen liburu gehienak irakurri arren, ez dugu aurkikuntza handirik egin. Adibide bat bera ere ezin izan dugu gehitu orain arteko zerrendan.

Ekidin ere **-kidin** atzikiak hornitua dagoenez ez du inoiz deklinabide atzizkirik onartzen. Aditz formak ere ezinezkoak ditu. **Ekidite**, **ekidingo** eta abar ezinezko formak dira berez. Ondorio gehiago atera daiteke? Harrigarria badirudi ere Laurent Diharassarry ere Sarakoa da, aurreko bi mendeko Axular, Harizmendi eta Haramburu bezalaxe. J. Martin Hiribarren Saratik hurbil dagoen Azkaingoa zen. Hiribarrenek **-kidin** formako aditz adjetiboak edozein aditzekin sortzeko ahalmena zuen, hau da, *sufijo productivo* delakoa edo atzizki emankor bat zen harentzat. Hiribarrenek **-kizun** atzizkidun formak ere erabiltzen zituen: etorkizun eta errankizun, baina tankera honetakoak erabiltzen zituenean lexikalizaturik erabiltzen zituen⁸. Gaur egunean hizkuntzaren jabe den hiztunak -tasun zein -keria atzizkiez baliatuz hitzak sortzen dituen bezalaxe, garai batean Sara inguruko idazleek **-kidin** atzikiak horniturik hitzak sortzeko ahalmena zuten. Kontua, ordea, besterik da. Zoritzarrez,

⁸ Adibide gutxi batzuk ematekotan: Buru gabeac dire beldurtzen direnac,/ Ostricatzeco gora tzar **errankisunac** (108 or). Arras haren oldea nahasten ez bada;/ Ez du chede hoberic nihorc seinalatu;/ Gaizkiaren gakhoac erakutsi ditu;/ Bihotza badu eta buru hautatua;/ Ezdu beldurrac utzi nihon icitua;/ Cer **ethorkizuna** den harenzat arguitzen/ Iguzkian baditu arguiac laguntzen! (160 or.)

Hiribarren bezalako joan den mendeko idazle gutxi aurki ditzakegu. Aurkitu daitezkeen testu guzti guztiak arakatu ez ditugun arren, oso gutxi dira testuinguruan aurki ditzakegun -kidin formako adibideak. Horrexegatik dira Lafittek zioen bezala "tres rares".

4-Etimologiaz hipotesiak

Artikulu honetako azken puntu bezala zilegi bekit aztergai dudan atzizki honen gainean hipotesi bat planteatzea. Has nadin neure azalpenean hain ezaguna den -(t)asun atzizkiarekin. -(T)asun atzizkiak badu anaia bixki bat ekialdeko euskaldietakoa : -(T)arzun . Lehena bigarrenetik dator, itxura guztiak direnez. -(T)arzun delakoa bi atzizkiren bilduma da. Lehen buruan -(t)ar eta bigarrenean -zun. Bigarren buruko -zun delakoa agertzen date arnozun (ardo bila) eta abarretan. Etorkizun bezalako hitzetan ere agertzen da -ki batetik, eta -zun bestetik. Aztergai dugun -kidin atzizkian ez ote dago lehenburuko -ki delakoa eta bigarrenik -din atzizkia? Mitxelena badu artikulu interesgarri bat -din atzizkiaz. Hona zer dioen delako atzizki horretaz "El sufijo -din es, por decirlo así, crepuscular: en otras palabras, ya (y desde hace sin duda mucho tiempo), no es productivo, pero puede sin embargo ser reconocido, a pesar de su fosilización, como elemento formativo de un grupo de palabras, usadas generalmente en función de adjetivo. El grupo no es grande, pero parece bastante unitario, en forma y sentido"⁹ Mitxelena -din atzizkiaz hornitutako hainbat forma arakatzen ditu. Geurea ere sail horretakoa litzateke¹⁰.

⁹ LUIS MICHELENA, *Nombre y verbo en la etimología vasca*, in *Fontes Linguae Vasconum*, 1970, II, 67-93 or.

¹⁰ Gorago esan dugun -kiden aldaerak, itxura hutsari begiratzuz gero, Lafonek zioen sozietiboaren etimologia itxura du. Lafonek RIEV aldizkarian agertu zuen bezalaxe, sozietiboaren (ama-re-kin, guraso-ekin eta abar) jatorria, (posesibo), -kide atzizkia eta inesiboa -n litzateke

Atzikiaren gaineko hipotesi txiki bat aurreratu dugu. Zer esan dezakegu ekidin delakoaz? Zein da hitzaren oinarrian dagoen aditza? Lino Akesolok egin aditza ikusten zuen oinarrian. Baliteke hala izatea. XIX garren mendeko **eginkidin** forma, modu horretara, ekidin delakoaren anaia bizkia litzateke.

Xabier Kaltzakorta